



Jende ugari biltzen da urtero Gudarien Plazan sagardoa dastatzera. Jon Urte / argaiak press

sagardoaren festa luzea

txotx eguna | hernani

Hasi da sagardo garaia, eta sagardoaren aitzakian hamaika ekitaldi antolatu dute Hernanin datozen asteetarako, txotx garaiak irauten duen bitarterako. Apirilaren 2a arte era eskotako ekitaldiak izango dira. Lehena gaur bertan izango da. Sagardo garaia gaur hasiko da ofizialki, eta, horretarako, jaialdi handia antolatu dute: Txotx Eguna. Ekitaldi nagusia eguerdian izango da, Gudarien Plazan, eta han Txillida familiari omenaldia egingo diote, hala erabaki baitute Hernaniko sagardogileek, Berriak ostalari eta merkatarien elkarteak, Kaxko auzo elkarteak eta Hernaniko Udalak. «Txillida Leku Hernanin ego-teak herriari egin dion promozioa aitortzeko» egingo diote omenaldia; horrekin batera, Txillida familiak herriarekin izan duen harremana gogoratu nahi izan dute antolatzaileek.

gpsa



Txalapartariak eta bertsolariak ez dira faltako gaurko egunean. Eta, noski, sagardoa dastatzeko aukera ere izango da. Kaleak girotzeko ardura Incansables txarangak izango du; eguerdian hasita, herriko kaleak zeharkatuko ditu bere doinu ezagun eta alaiekin. Musikarentzat ez ezik, kirolarentzat ere tartea izango da gaur; 13:15ean Miren Urkiola, Inaxio Perurena eta Iñaki Perurena harri jasotzaileek emanaldia eskainiko dute Gudarien Plazan. Horiek dira gaurko antolatu dituztenak, baina ziuur festak arratsaldera arte iraungo duela.

Gaurko eguna bukatuko da; txotx garaia oraindik ez, ordea, ezta haren inguruan antolatutako egitaraua ere. Hurrengo egunetako eskaintzak haur eta gazte-txontzetan dira. Astelehen, astearte eta ostegunean Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek sagar jaiari hartuko dute parte; sagarra-ekin zerikusia duten jokoetan ariko dira. Datorren iganderako, berriz, 6 eta 10 urte bitarteko

haurrentzat sorginkeri tailerra antolatu dute. 11:00etan izango da hori, eta ondoren, 13:00etan, sorginen kalejira egingo dute. Goloka taldearekin, herriko kaleetan zehar. Otsailera-ko hainbat musika emanaldi antolatu dituzte: hip hop funky showa, La Fonda pop-rock taldearen emanaldia eta Perfusion taldearena. Horrekin batera, martxo hasieran Zubietako joaldunek Hernanira egingo duten bisita azpimarratu behar da.

Sagardoarekin jarraituz, ezin aipa gabe utzi Tolarea Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiaren XI. kapitulua; martxoaren 19an ospatuko da.

Txotx garaia amaitzeko, Txirrita bertsolaria omenduko dute martxoaren 25ean; haren heriotzaren 70. urteurrena eta II. Bertsolari Txapelketako garalpena gogoratuko dira. Bertso musikatuaren emanaldia egingo dute Jexux Mari Irazuk, Unai Agirrek eta Joxan Goikoetxeak Biteri kultur etxean. **nagore rodriguez**

Txillida familia omenduko dute gaurko ekitaldian

noiz non

Gaur, Txotx Eguna:

12:00: Ekitaldi nagusia Gudarien Plazan.
12:00: Incansables txaranga
13:15: Herri kirolak.

Urtarrilaren 23, 24, eta 26a:
14:30: Sagar jaiak.

Urtarrilaren 29a:

11:00: Sorginkeri tailerra.
13:00: Sorginen kalejira.

Otsailaren 4a:

19:30: La Fonda pop-rock.

Otsailaren 12a:

18:00: Hip Hop funky show.

Otsailaren 18a:

12:30: Perfusion taldea.

Martxoaren 5a:

12:30: Joaldunak.

Martxoaren 19a:

Tolarea Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiaren XI. kapitulua.

Martxoaren 25a:

11:30: Zezen mekanikoa.
20:00: Bertso musikatuak.

Apirilaren 2a:

18:00: Kale antzerkia: Tetra-
Rip el último envase.

De Rerum Natura

zaldieroa@zaldieroa.com

